

## POETRY V



**Erruduna**

Nahi izanez gero, poemak abes daitezke. Hona hemen soinua:



Poetry V - Soinua.mid

**Testuak eta argazkiak: X. Galarreta**

Lege-gordailua: SS-1023/06

Gaueko argi horiak malenkoniatsuak  
beste garai bateko oroitzapenetan  
nahasita datozkit denak burrunbaran  
*galdu naiz betiko-ta labirinto honetan* (bis).



Aingeru olerkaria zeri begira hago?  
Begiz ikusten denak hiri ez dik balio  
Hire sekretuak irakatsi gaurkoz  
*Arima begiduna hori bai emankor* (bis).



Euri-egun urrunak nire bihotzean  
lo dagoen umea sehaskan bezala  
norabait joanda ere zaituztet eraman  
*amultasun berberaz, galtzeko beldurraz (bis).*



Bide txiki eta handiak galtzen amaigabe  
fortunatu zaiguna begi aurretik kentzen  
harantzago dagoena auskalo zer ote den  
*bihotza dugu bipil aurre egiteko prest (bis).*



Herriko erremintari, langile petoa  
lanabes guztioriek bai lagun leialak  
Hitz egiteko gauza izango balira  
*alperrak izutuko euliak bezala (bis).*



Horraino jaitsiz gero, ez dakit nik nora  
agertu behar dudan hemendik gutxira  
baina kontuan hartuz nire lanbidea  
*baietz iritsiko naiz hortik infernura (bis).*



Gure begi aurrean daukagun suteak  
ura balitz bezala garbitzen du arima.  
Gizon xumea izanik niri ez zait inporta  
*erabat kakaztuta zerura iristea (bis).*





Neguko zuhaitz beltza paisaian biluzik  
esan altu eta ozenki, nork horrela zaitu utzi?  
Zurekin izan duen antzeko erruki  
*erabiliko dut nik baita ere harekin (bis).*



Alutxo birtuala kutsatugabea  
zurekin izan ditut amets ugariak  
aurkitu ez nuena errealitatean  
*asebetzera*ino eman dit telebistak (bis).



Nondik etortzen zaigun inspirazioa  
mixterio guztietan ez da makalena  
oraintxe etorri zaidan ideiak burura  
*Chaplin delakoarekin egin du bidea* (bis).



Urrutiko Gabonak neuzkan erdi ahaztuta,  
baina ustekabeen horra oroitzapen bat.  
Burutik oinetara kordokatu egin nau:  
*lanbrotik aterata pinuko argiak (bis).*



Bizitzeko denboran itxoiten genuen  
distira handiko zerbait –eta ez horren xume–;  
bizitzako kontuak bizi apaltasunez  
*heriotzako atea zeharkatu baino lehen* (bis).



Lehen edo berandu iristen da une bat zorion mota guztiak galtzen direnean. Gutaz gera daitekeen oroitza bakarra: *lekuz kanpo dagoen halako ikuspena (bis)* .



Dantzariak han-hemen begien bistatik  
argizariaren antza denei zaie itsatsi;  
berrogei urteetako giro urrun batetik  
*eskapatu direla ematen dit niri (bist).*



Partidaren ostean isiltasuna da  
tokiaz jaun ta jabe, amaitu da dena;  
baina zela horietan gertatu izan dira  
*euskaldunon bataila zirrargarrienak* (bis).





Gogogan dut antzinan harrizko bideak  
lohizkoekin batera ziren nagusiak.  
Alderatzen hasita ikusten dut zera:  
*bide guzti-guztiak doaz Erromara (bis).*



Musikaren bidean sartu nahi duenak  
prest egon beharko luke gogor lan egitera.  
Hor lekurik ez dago alperrontzientzat.  
*Pikutara doazela hortera guztiak (bis).*



Gabonak heldu dira, opari-garaia,  
saia gaitzen gogor birziklatzen dena;  
bestela iritsiko da Olentzero eguna  
*eta ekarriko digu errauts-lantegi bat (bis).*



Fruitu debekatua garai guztietan  
existitu izan dela egia baino ez da  
hortik jaten duena dago galbidean  
*ta jaten ez duena... ze gizarajoa! (bis).*



Ipurdi loriosua, liluraz betea  
zugatik zer egingo ez nukeenik ez da  
bizia emateraino bultzatzen nau grinak  
*biziotik aldentzeko beranduegi da orain (bis).*



Sorgin-etxe batean hura zen gertatu  
baina bizitakoa ez zait ba damutu;  
bizitzako uneak ez badira lantu,  
*sorgin baten besoetan behar dira pasatu (bis).*



Kalearen gorrian, nintzenaren bila  
halaxe dut buruan nire gaztaroa:  
hamaika jostorratzez arima josia  
*ardi beltza mendian erabat galdua* (bis).



Ama natura dugu denetaz jakintsu  
berak ez dakienik oraino ez da asmatu  
dakigula ustetan jartzen gara harroputz  
*konturatu orduko a ze nolako huts!* (bis).





Plazer-iturri dugu masturbazioa  
masturbatzen ez dena hori bai ergela;  
geratzen zaigun plazer azkenetakoa  
*ez diezazula kendu Inkisizioak (bis).*



Udazkenak jarri du guban begirada  
ta bihotz-bihotzean sentitu dut mina;  
eguzki-egun alai, argitsu, luzeak  
*ez alde egin ni hemen bakarrik utzita (bis).*



Zuhaitzak ikusita artegatu egin naiz  
doakabe-itxura horixe sartu zait barrura;  
itomin edo angustia korapilatuta  
*urtaroaren erru, seguru izango da (bis).*



Baserri zahar-maitea, sendo-erorgaitza  
betirako eraikia mendiak bezala;  
zu ez zara hor inork ipini zuena  
*baizik-eta natura beraren zatia (bis).*



Parkeko bakardade horretan ibiliz  
ez hasi orain galdetzen ea nengoen pozik;  
inork ez du gustoko bakardade-usainik  
*ez dago besterikan, euts gogor goiari* (bis).



Telebista pizturik sentitzen naiz alai  
konturatuko ez banintz errealitateaz;  
plastikozko paisaia aurrean edukita  
*iruditzen zait niri zinezkoa dela* (bis).

